



Unibertsitateko panela:

TikTok
2024-2025

54. TXOSTENA · 2025EKO APIRILA



AURKIBIDEA

IKUSIKER.....	2
1. FITXA TEKNIKO.....	3
2. EMAITZAK.....	4
TIKTOK.....	4
LABURREAN.....	16
IKUSIKER.....	17

IKUSIKER

Gazteek ikus-entzunezkoak kontsumitzeko eta Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT) erabiltzeko ohiturak, moduak eta joerak aztertzen ditu IKUSIKER Ikus-entzunezkoen Behategiak. 2018/2019 ikasturtean sortu zen eta gaur egun NOR Ikerketa Taldeaz gain EITBk, Kulturaren Euskal Behatokiak eta Euskararen Erakunde Publikoak osatzen dute IKUSIKER Behategia.



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa (Bizkaia)

+34 747 414 355

ikusiker@ehu.eus

Ikerketa hau burutzeko Aztiker Soziologia Ikergunearen laguntza jaso da eta Encuestafacil aplikazioa erabili da online galdetegiak betetzeko.



encuestafacil

1. FITXA TEKNIKOA

2024-2025 ikasturtean, IKUSIKERen Unibertsitateko panelean bat egiten dute Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA/NUP) bi mila ikasle pasatxo. Laginean lurralde, jakintza-arlo, fakultate eta ikasketa-maila desberdinetako gazteak daude. Landa-lanari dagokionez, ikasturtearen hasieran aurrez aurre ikasgeletan betetzen dute lehen inkesta eta, hortik aurrera, panelean parte hartzeko baiezkoa ematen duten ikasleei Whatsappez bidaltzen zaizkie hurrengoko lau galdetegiak, hilean behingo maiztasunarekin.

Txosten honetan aurkitu daitezke 2024ko urtarrilaren 13 eta 25 bitartean Instagram eta TikTok buruz egindako inkestaren emaitzak. Guztira, 2024 ikasleren erantzun baliagarri jaso dira.

Dena den, IKUSIKERen Unibertsitateko panela UPV/EHU eta UPNA/NUPeko ikasle guztien errepresentagarri da. Unibertso horren kopurua lortzeko, laginaren datuen gaineko ponderazioa egin da, eta horretarako, aldagai hauek erabili dira:

- Sexu/generoa
- Unibertsitatea
- Probintzia
- Ikasketa eremua
- Ikasketa maila

2. EMAITZAK


TIKTOK

Txosten honen hasieran ikusi dugunez, IKUSIKER ikerketan parte hartzen duten unibertsitarioen artean TikTok oso hedatua dagoen sare soziala da. Hiru ikasletik bik kontua daukate eta erabiltzen dute eta galdetu zaienean sare sozialik erabilien artean kokatzen ote duten % 25ek hala egin du, Whatsappen eta Instagramen atzetik.

Atal honetan beraz, TikToken zentratuko gara eta unibertsitateko panelean inkesta erantzun duten 2024ren iritziak bildu ditugu. Hasteko, TikToken irismena eta erabilera-maiztasunean fijatuko gara eta ondoren zertarako konektatzen diren eta noraino ikasleek sortutako edukiak igotzen dituzten. Emaizetan sakondu ahal izateko, sexuaren eta ikasketa-mailaren arabera alderaketa egingo dugu.

Inkestatuen % 69,8k kontua du Instagramen eta ehuneko hori dezente altuagoa da emakumezkoen artean (% 77,3) gizonezkoenean baino (% 60,2).


30. irudia. TikToken kontua. Guztira eta sexuaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko urtarrila

Ikasketa-mailaren arabera azterketak agerian uzten du gazteagoek (1. eta 2. mailetakoek) ohikoagoa dutela TikTok 3. eta 4. mailetako ikasleek baino. 27,2 puntuko aldea dago bien artean.


31. irudia: TikTok kontua. Ikasketa-mailaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko urtarrila

Lehen mailako ikasleetatik % 81,4k kontua dauka TikTok eta laugarren eta hortik gorakoen % 54,2k baino ez. Kontrara, TikTok erabiltzen ez duten gazteagoen kopurua % 18,6 da eta kopuru hori % 45,8 da laugarren mailan.

32. irudia: TikTok erabilera maiztasuna. Guztira eta sexuaren arabera.




Iturria: Ikusiker, 2025eko urtarrila

Sare sozial honen irismena eta erabilera-maiztasuna oso altuak dira. Azken honi dagokionez, inkestatuen % 57,4k "egunean behin baino gehiagotan" erabiltzen duela baieztatu du. Egunean behin konektatzen direnen kopurua % 21,8 izan arren, lau puntu handiagoa da emakumezkoen kasuan (% 25,2). Erabilera-maiztasun apalagoak dituzten ikasleen kopuruak txikiak dira.

Ondoko irudiak, ikasketa-mailaren arabera irakurketa egiten du.

33. irudia: TikTok erabilera maiztasuna. Ikasketa-mailaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko urtarrila


Goiko irudian ikus daitekeenez, edozein ikasketa-mailakoak izanik ere, panelkide gehienak "egunean behin baino gehiagotan" konektatzen direla erantzun dute. Baina lehen mailako ikasleen kopurua % 66ra iristen den moduan, laugarren mailakoena % 44,9 da. Beste muturrera jota, erabilera-maiztasuna baxua ala erabiltzen ez dutenen ehunekoa asko handitzen da laugarren mailako ikasleen artean.

Galdetzen zaienean TikTok zenbat denbora pasatzen duten egunean, ikasleen kopururik handienak (% 52,6) esaten du 16 eta 60 minutu artean aritzen dela sare sozial horretan. Nesken artean altuxeagoak dira kopuruak (% 54,4).

Ordu betetik gorako kontsumoak dituztenen ehunekoa 31,4 da eta hor ere nesken ehunekoak handiagoak dira (% 34,3).

Kontrara, emakumezkoen % 10,7 egunean 0-15 minutuz konektatzen den moduan, kopuru hori % 24,9ra iristen da gizonezkoen kasuan.


34. irudia: TikTok egunean pasatzen duten denbora. Guztira eta sexuaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko urtarrila

Ikasketa-mailari erreparatuz, lehen eta bigarren mailako ikasleek kontsumo apalagoak dituzte. 20 urtetik gorakoek TikToki eskaintzen dioten minutu kopuruak behera egiten du.

35. irudia: TikTok egunean pasatzen duten denbora. Ikasketa-mailaren arabera.




Iturria: Ikusiker, 2025eko urtarrila

35. irudian agertzen denez, oro har, 60 minutu arteko kontsumoetan gutxiago dira lehen eta bigarren mailetako ikasleak. Horiek denbora gehiago pasatzen dute TikTok. Aldiz, 3-4 mailetan dauden ikasleen kopurua txikia da 90 minututik gorako kontsumoaldietan.

Ondoko pasarteetan arreta jarriko dugu ikasleek TikTokera sartzeko aipatzen dituzten arrazoietan. Eta horietatik hiruen emaitzak aletuko ditugu: besteen bideoak ikusteko, norberak ekoiztakoak igotzeko edota zuzenekoak egiteko.


36. irudia: TikTok zertarako erabiltzen duten (1): beste erabiltzaileek igotako bideoak ikusteko.



Iturria: Ikusiker, 2025eko urtarrila

TikToken funtzioen artean aipatzen lehena, beste erabiltzaileek igotako bideoak ikustearena da. Ikasleen % 51ek dio egunean behin baino gehiagotan horretarako erabiltzen duela eta beste % 26,8k gutxienez egunean behin konektatzen dela. Guztira, unibertsitateko ikasleen % 77,8k dio eguneroko gauza duela TikToken sartzea besteen bideoak ikustera.

37. irudia: TikTok zertarako erabiltzen duten (2): bideoak igotzeko.




Iturria: Ikusiker, 2025eko urtarrila

Ikusle hutsak izatetik harago joanez eta bideoak edo beste edozelako edukiak igotzen duten ikasleen ehunekoa 24,6 da. Aktiboagoak diren horien artean, % 14,6k esan du hilean behin igotzen dituela bideoak Beraz, agerian gelditzen da TikTok dela

nagusiki besteen edukiak kontsumitzeko sare soziala eta beraz, % 75,4k ez du inoiz edukirik igotzen.


38. irudia: TikTok zertarako erabiltzen duten (3): zuzenekoak egiteko.



Iturria: Ikusiker, 2025eko urtarrila

Modu berean, TikTok zuzenekoak egiten dituztenen ehunekoa oso-oso txikia da eta gainera jarduera horiek aurrera ateratzeko maiztasuna oso apala. Inkestan jasotako erantzunek garbi erakusten dute hori: ikasleen % 91,6k ez du inoiz zuzenekorik egiten eta % 1,2 soilak dio hilean behin aritzen dela zuzenekoetan.

39. irudia: TikTok erabileran nagusitzen den hizkuntza.




Iturria: Ikusiker, 2025eko urtarrila

TikToken erabiltzen diren hizkuntzei dagokionez, gaztelania da ohikoena. Hala nola, ikusten dituzten edukien % 72,4 gaztelaniazko da eta horren ostean dator ingelesa % 19,9arekin. Gainerakoen pisua hutsaren hurrengoa da.

Hemendik aurrerako pasarteetan, tiktokzaleak diren ikasleei galdetuko diegu edukiak sortu eta igotzen ote dituzten sare sozialera. Modu horretara jakingo dugu TikToken aktiboagoak diren erabiltzaileak proportzionalki zenbat diren eta zer itxura daukaten sortzen dituzten edukiak.


40. irudia: TikTokerako eduki sortzaileak. Guztira eta sexuaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko urtarrila

Besteek sortutako edukiak ikustea da TikToken gazteek daukaten jarrera arruntena (% 79,3). Ehuneko 14,8k bakarrik esaten du berak eginikoak igotzen dituela sare sozial horretara. Eduki sortzaile direla dioten horien artean % 20,2 emakumeak dira, % 5,8 gizonezkoak diren bitartean.


40. irudia: TikTokerako eduki sortzaileak. Ikasketa-mailaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko urtarila

41.irudiak agerian uzten duenez, ia-ia hamar ikasletik zortzik ez dute TikTokerako edukirik sortzen eta igotzen, edozein izanik ere beraien ikasketa-maila. Hori bai, sare sozialean aktiboagoak direnen presentzia handiagoa da gaztetxoagoen kasuan (bigarren mailako % 20,3k edukiak igotzen ditu).

42.irudia: TikToken sortzen duten eduki mota. Guztira eta sexuaren arabera.




Iturria: Ikusiker, 2025eko urtarila

Ikusiker paneleko unibertsitarioei eskaini dizkiegun bideo mota desberdinen artean tendentziak (% 26,9) direnak, kantuen coverrak (% 15,5) eta bideo barregarriak (% 13,7) dira gehienetan igotzen dituztenak TikTokera. "Beste bat" delako kategoria aukeratu dutenak ez dira gutxi (% 21,6), baina ez dugu jakiterik zer-nolako bideoak diren.

Sexuari dagokionez, gizonezkoetan bi aukera nagusitzen dira, "beste bat" deritzona % 44rekin eta bideo barregarriak (% 29,1). Bi horietan, emakumezkoen ehunekoak oso desberdinak dira. Kontrara, emakumezkoen artean nabarmentzen da "tendentzia diren bideoen bertsioak" (% 29,9) eta kantuen coverrak (% 17,7) egitearena.


43. irudia: TikToken sortzen duten eduki mota. Ikasketa-mailaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko urtarrila

Ikasketa-mailakako emaitzen irakurketak erakusten du adinean gorago dauden ikasleen artean gutxitu egiten dela kantuen coverrak eta koreografiak egitearena. Eta, aldiz, handiagoa da tendentzia dauden bideoak ekoiztea edota barregarriak eta ikasleen egunerokoan pasatzen zaizkien gauzetan oinarritutako bideoak TikTokera igotzea.


44. irudia: TikTok-en sortzen duten edukiaren hizkuntza. Guztira eta sexuaren arabera.



Iturria: Ikusiker, 2025eko urtarrila

44. irudiak azaleratzen du zein handia den gaztelania hutsean TikTokerako bideoak ekoizten dituztenen ehunekoa (% 78,7). Emakumezkoen % 77,6k beti gaztelaniaz egiten ditu bideoak eta gizonezkoetan % 85,6k. Aitzitik, gizonezkoen % 6,2k "beti euskaraz sortzen ditut bideoak" esaten du, baina emakumeetan % 0,2 baino ez.

45. irudia: TikTok gainerako balorazio orokorra.



Iturria: Ikusiker, 2025eko urtarrila

TikTok plataformak merezi duen nota 8koa da inkestatuen % 25,9gentzat. Orohar, 7-8 bitarteko balorazioa eskaintzen die unibertsitarioen % 44,5k. 5-6 bitartekoan kokatzen da erantzunen % 22,1 eta bikaina dela uste dutenen ehunekoa % 19 da.

LABURREAN

- Inkestatuen % 69,8k kontua du TikToken. Batez besteko ehuneko hori 17,1 puntu altuagoa da emakumezkoen artean (% 77,3) gizonezkoenean baino (% 60,2).
 - Gainera, 18-19 urteko unibertsitarioen % 81,4k kontua daukan bezala, 4. mailakoen artean nabarmen jaisten da irismena (% 54,2).
- Erabilerarekin lotutako bi faktoreetan, hau da, maiztasunean eta denboran lortutako kopuruak aipatzekoak dira UPV/EHU eta NUP/UPNAko ikasleen artean. Unibertsitarioen % 79,2 egunero sartzen da TikTokera eta horietatik % 57,4 behin baino gehiagotan. Erabiltzaile gehienak, egunean 16-60 minutu artean egoten dira konektatuta. Beste % 31,4k ordu betetik gora ibiltzen da Instagramen egunero. Adin guztietako ikasleentzat 16-60 arteko kontsumoak diren arren ohikoenak, TikToken denbora gehiago pasatzen dutenen artean pisu gehiago daukate lehen eta bigarren mailetakoe.
- TikTokera konektatzeko ikasleek dituzten arrazoen artean bi dira aipatuena: besteen bideoak ikustea eta norberak ekoiztutakoak igotzea. Beste erabiltzaileen bideoak ikustea da ohikoena TikToken (egunean behin baino gehiagotan % 51 eta egunero % 26,8). Edozelan ere, lau ikasleek batek, berak eginiko bideoak igotzen ditu eta, gainera, horien artean % 14,6k egunean behin ala gehiagotan.
- Gaztelania (% 72,4) eta proportzio apalagoan ingelesa (% 19,9) dira TikToken nagusitzen diren hizkuntzak.
- TikToken aktiboagoak diren ikasleak eta bideoak grabatu eta sarera igotzen dituztenen artean nagusitzen dira tendentzia diren bideoak, kantuen coverrak edota bideo barregarriak egitea. Neskentzat ohikoagoak dira lehen biak eta mutilak aldiz bideo barregarrietara jotzen dute maizago.
- Gaztelania nagusitzen da TikTokerako egiten dituzten bideoetan. Beti gaztelaniaz edo gehienetan gaztelaniaz direnen kopurua batuta % 87,6 da. Euskara hobesten dutenen ehunekoa 5,2koa da.
- TikToken gaineko balorazio orokorra egiteko eskatu zaienean, % 44,5ek 7-8 nota jartzen dio. Beste % 19k 9-10 puntu atxikitzen dizkio.

IKUSIKER

Ikusiker Ikus-entzunezkoen Behategiak gazteek ikus-entzunezkoak ikusteko eta IKT edo Informazio eta Komunikazio Teknologiak erabiltzeko ohiturak, moduak eta joerak aztertzen dituen behategia da. Ikusiker 2018/2019 ikasturtean sortu zen NOR Ikerketa Taldeak eta EITBk abiatutako Applika+ izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40) eta gaur egun UPV/EHU, EITB, Euskararen Erakunde Publikoa eta Kulturaren Euskal Behatokiaren arteko elkarlanaren fruitu da.



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa (Bizkaia)

+34 747 414 355

ikusiker@ehu.eus